

txintxarri



Ikasturte hasiera Lasarte-Orian

Lasarte-Oriako haur eta gazteek ikasgelak bete dituzte / 3

Badiako bizipenak

Fernandez eta Martin arraunlariekin hitz egin du TXINTXARRI-k, Kontxako Banderari buruz / 8-9

Atsobakar zahar etxeko ustezko irregulartasunak, udalbatzarrean eztabaidagai / 2

Maialen Chourrautek brontzea irabazi du La Seun jokaturako Munduko Kopako azken proban / 10

Josue Igeltseritza
Igeltseritza s

Igeltseritza orokorra

- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Barruko berrikuntzak
- Gremioen koordinaketa

606 37 21 05
Atallu pol. atallu, 28
USURBIL
josueigeltseritza@euskalnet.net

EPA LASARTE HHI

2017-2018 ikasturtea

MATRIKULA EPEA ZABALIK OFIZIALA ETA DOAKOA

- Lehen eta bigarren hezkuntza arautuak (DBH).
- Gaztelania atzerritarrentzat.
- Tailerrak: Euskara, ingelesa, frantsesa, informatika, nutrizioa, artea, literatur tertulia.
- New Intermediate (B level) and Conversation ENGLISH. **Berria!**

Tel. 943 37 64 43 / 943 36 66 08 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • www.epalasarate.es



Ordutegia:
10:00-12:00
17:00-19:00*
(*ostiralak ezik)





Udalbatzarreko zinegotziak, astearteko bilkuran. TXINTXARRI

Udalbatzarrera heldu da Atsobakarko auzia

Zahar etxean daudenen hainbat senitartekok irregulartasunak salatu dituzte, baina Gipuzkoako Aldundiak ebatzi du ez dela horrelakorik egon. Lasarte-Oriako eta Donostiako lurren bateragarritzeak aurrera egin du, Leroy Merlin eraiki ahal izateko

Adrian Garcia

Ikasturtea hasi da udalbatzarrean ere. Abuztuko etenaldiaren ostean, aste honetan egin dute iraileko batzarra zinegotziek. Eguneko gai zerrendan egon ez arren, Atsobakar zahar etxeko auziari buruz galdetu dute zinegotziek. Hain zuzen, aste honetan ebatzi

du Gipuzkoako Aldundiaren ikerketak langileen aldetik ez dela irregulartasunik egon.

Hainbat hedabidek egin zituzten publiko zahar etxeko usteko irregulartasunak, zentroko adinekoen senitartekoen testigantzak hartuta. Antza denez, abuztuan emakume bat gauez harrapatuta

geratu zen korridorean, gelara sartu ezinik. Lehioari kolpeka hasi zen, eta Udaltzaingoa bertaratu zen, bizilagunek ohartarazita.

Udalak informazio guztia Gipuzkoako Aldundiaren eskuetan utzi du. Hain zuzen, aste honetan Batzar Nagusiak bildu dira, eta Maite Peña

Gizarte Politiketarako diputatuak argitu du ez dituztela irregulartasunik aurkitu.

Leroy Merlin

Bestalde, hirugarren puntua salbu, ez da desadostasun nabarmenik egon biltzarrean. Leroy Merlin eraikitzeak diren eremuak bateragarritzeko puntuak piztu du PSE-EEren eta EH Bilduren arteko eztabaida.

Lasarte-Oriako A-33 Teresategi eremua eta Donostiako AÑ.10 Recalde (II) eta HAPoren Bide Sistema Orokorren eremuen bateragarritze plana onartu du batzarrak, aldeko bederatzi botorekin, aurkako hirurekin eta lau abstentziorekin. Eremu horretan dira eraikitzeak Leroy Merlin multinazionala.

Aurreko udalbatzarreko eztabaida errepikatu dute udal ordezkariak: EH Bilduk proiektua kritikatu du, herriko merkatariei kalte egingo diola argudiatuta. PSE-EEK, berriz, ohartarazi du Lasarte-Oriako lurretan eraiki ezean, Donostian egingo dutela berdin-berdin, herriatik hurbil, eta, modu horretan, gutxienez zerga bilketa handitu eta lanpostuak sortuko dituztela herrian.

Gai zerrendako beste puntuak arazorik gabe onartu dituzte. Maitzaren 26ko batzarreko aktei aho batez eman diete

oniritzia. Bestetik, 2017. urterako Taula Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda aldatzea adostu dute. Horrela, Hirigintzako Administrari lanpostu bat amortizatuko dute, eta Zerbitzuetako Administrari Laguntzaile lanpostu bat sortuko dute. Baiezeko hamabi boto jaso ditu proposamenak, eta lau abstentzio.

EH Bildu ados agertu da asmoarekin, baina prozeduraren aurkako zalantzak plazaratu ditu. "Langile batzordearen iritzia jaso dugu, eta onartzen dugu amortizazioa, lanpostua beste departamentu batean sortzeko. Baina uste dugu beste bide batzuk hartu zitezkeela", adierazi du Pablo Barriok, EH Bilduko bozeramaileak.

Zabaleta-Berri lursailak

Zabaleta-Berriko lursailaren salmentaren prozesuak ere bere bidea egin du. Enpresa bakar bat aurkeztu da lehiaketara: Urkilla SL. Kontratazio mahaiak onartu du eskaintza, eta udalbatzarrak orain onartu du enpresa horri beharrezkoak diren agiriak eskatzea.

AURREKO UDALBATZARRETAN BEZALA, LEROY MERLIN IZAN DA EZTABAIDA ITURRIA



TXINTXARRI

Zauriak filmen bidez orbantzeko

Lasarte-Oriako bizikidetzaren taldearen zine-zikloa hasi da dagoeneko. Joan den asteartean ikusi zuten lehen filma: Mikel Ruedaren *Izarren Argia*. Gerra

Zibleen Saturrarango emakumeen kartzelan jazotako ankerkeriak kontatzen ditu filmak. Atzo, ostegunean, dokumental bat ikusi zuten, eta solasaldia egin

zuten gero. Fermin Aioren *Oinatz galduak* ikusi zuten, eta 1980ko hamarkadako indarkeria atalak errepasatu zituzten: GAL, Hiperkorreko atentatua, IHESaren kolpea...

Datorren asteartean ere elkartuko dira bizikidetzaren gaia lantzeko. *Glencree (bake prozesua)*, *elkarrekin egindako bidea* dokumentala emango dute, Antonio Mercero aretoan. Indarkeria mota desberdinak sufritu dituztenen topaketa kontatzen du ikus-entzunezkoak. 2007. eta 2012. urteen artean egin zuten. Dokumentalaren ostean izango da solasaldia, bi gonbidatu berezirekin: Maixabel Lasak eta Lourdes Zabaltzak haien esperientziaren berri emango dute. Orain dela hiru urte hasi zen Lasarte-Oriako Bizikidetzaren Taldea lanean.

PSEko gazteak, indarkeria matxistaren aurka

JSE-EGAZ alderdi sozialistako gazteak indarkeria matxistaren aurkako kanpaina dute martxan. Gaur, ostiralean, Kultur Kutxa musika jaialdian izango dira, hipodromoan, eta *Indarkeria matxistarik ez leloa* duten txapak banatuko dituzte, eta gazteekin hitz egingo dute.

PSE-EEko oinarriak azaldu duenez, indarkeria matxistaren aurkako kontzientziazioa lantzea du helburu. Gazteengan jarri du begirada, eta, horregatik, jai gunera joango dira haiekin hitz egiteko. Urte eta erdi da kanpaina hori martxan jarri dutela: "Sozialistok gizarte ekintzailea nahi dugu, indarkeria matxistari ez esaten diona".

Udalak ikastetxeetako estalkiak herritzeko kontratua sinatu du

Lasarte-Oriako udalak bi kontratu adjudikatu ditu, Landaberri eta Sasoeta ikastetxeetan poliuretanozko estalkiak ordezkatzeko edo berriak ipintzeko. Denera, 77.477 euro gastatuko ditu.

Udalak berak jakinarazi duenez, Landaberri zentrorako estalkiak 24.865 euroko kostua du. Lanak egingo dituen enpresa Pavitec 2000 SLU da.

Sasoetako lanek, berriz, 52.611 euroko kostua dute, eta Cubiertas Pagola S.L. enpresari adjudikatu zaizkio.

Bi obrek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailaren diru laguntza dute. 40.656 euro jarriko ditu Eusko Jaurlaritzak.



Ikasle txikiak gela berrietako txoko eta jostailu guztiak ikertu dituzte lehen egun hauetan. TXINTXARRI

Haur eta gazteek, ikasturte berria aurrean

2017-2018 ikasturtea hasi da Lasarte-Orian. Bi aste hauetan ikasgelak betetzen joan dira. Berrikuntza gutxi dakar ikasturte honek. Sasoeta-Zumaburu ikastetxea Zumaburuko eraikineko lanak noiz hasi zain dago

Nerea Eizagirre

Lasarte-Oriako ikastetxeetako gela eta korridoreetan hiru hilabeteko oporraldia amaitu da. 2017-2018 ikasturtea hasi da eta haur eta gazteen ahots eta algarak entzuten dira ikastetxeetan nonahi.

Lehenak, Andre Joakina haur-eskolako txikiak izan ziren. Irailaren 6an hasi zuten ikasturtea. Txikiak egokitzapen asteak dituzte aurretik. Zaharrenak aurreko ikasturteko laguntxoekin jolas eta solas dabilta.

Oriarte BHIko gaztetxo eta irakasleak izan dira hurrenak martxan jartzen.

Irailaren 7an aurkezpen saioak izan zituzten DBH eta Batxilergoko ikasleek eta lan eta lan daude dagoeneko.

Landaberri ikastolako haur eta gaztetxoak, berriz, astelehenean elkartu ziren berriro ere gelatan edo txikiak kasuan, haien irakasle, ikaslagunak eta gela ezagutu

zituzten, guztia gurasoen begiradapean.

Zumaburu eraikina

Sasoeta-Zumaburu ikastetxean, 3 urtetik gorako ikasleak irailaren 8an bueltatu ziren ikastetxera. Txikiak, berriz, astelehenean izan zuten lehen eguna, gurasoen laguntzaz.

Ikasturte honetan ere Zumaburuko egoitzako atak itxiak daude. Cristina Berloso zuzendariak azaldutakoaren arabera, "ekainean bagenekien ikasturte honetan ez zela arazoa konponduta egongo. Orain, zain gaude lanak noiz hasi. Azaroa hasieran dago aurreikusia hasia eta 5 hilabeteko lanak dira. Pentsatzen dugu

**AZAROAN
ZUMABURU
ERAIKINEKO LANAK
HASIKO DIRA, 5
HILABETE IRAUNEZ**

udaberrirako amaitua egongo dela, ezer gehiago ateratzen ez bada".

Ondorioz, beste ikasturte batez, 2 eta 3 urteko haurrak Sasoeta-Zumaburu eraikinean izango dituzte ikasgelak eta 4 eta 5 urtekoek, aldiz, euskaltegi zaharrean. Ez dute psikomotritate gelarik izango eta txikiak jangela, Biyak Bat elkarteko ehoitzan egongo da.

Gogoratu Sasoeta-Zumaburu ikastolako Zumaburuko eraikinean zaharberitze lanak egin zituztela 2016ko udan. Lanean zirela eraikinaren estrukturan patologiaren bat zegoela ikusi eta eraikinaren atak itxi ziren. Behin behinean ikasleak lekuz aldatu zituzten. Txostena egin eta obra handia izaki, Eusko Jaurlaritzaren esku geratu zen prozesua. Burunzpe guraso elkarteak ikasturte amaieran ikasleen egoera salatu eta irtenbide duina eskatzeko hainbat mobilizazio antolatu zituen. Arartekora ere jo zuen elkarteak.



NEURE KABUZ

GORKA LASA

Postariaren ametsak

Ezpainetan *Habanera* doinu ezagun eta goxoa txistukatuz zihoala egin dut topo goizean atartearen postariarekin. Diosalarekin batera, umore onez dagoela adierazi diot, eta berak baietz, gogoko duela oso uda sasoia, fakturak beharrez munduko txoko desberdinetako postalak banatzen dituelako; batzuk urrutikoak, zenbait exotikoak, hainbat tokitakoak... postaria gustura aritzen da lanean noizbait bera ere horrelako lekuren batera iritsiko den egunaren zain: Thaiandiako curry-aren usaina hartzen du, edo Habanako bainila, ron eta kanelarena, edo Veneziako gondola batean doa kulunkan, edo Alpeetako malkarretan gora...

Postaletako argazkien bidez ezagutu genituen txikitik munduko hainbat leku miresgarri; senideen arteko harreman estuari eutsiz, aitona-amonei non ginen adierazteko idazten genien, edo osaba-izebaren batek haiei (eta guk beren etxean postala ikusi), edo lehengusuen arteko harreman idatzia... Argazkietan ageri ziren Florentziako ufizitarren galeriak, Erromako plazak, Afrikako basamortua eta piramideak edo Mediterraneo itsasoa, besteak beste.

Gaur, ordea, nork idazten eta bidaltzen ditu postalak? Ez dut aspalditxoan horrelakorik jaso. Nori saltzen dizkiete oroigarri dendetan ikus ditzakegun postal horiek? Asmatu duzu, bai. Bildumazaleek erosten dituzte, haien paperezko mundua osatzeko: argazkiak atera beharrez, eta disko gogorrez betirako ahaztu, beraiek bisitatutako leku horien argazki ederrak (postalak zer dira, bestela) eskuratu eta mapamundi partikularra osatzen dute bidaiari bildumazaleek.

Hainbatek pentsatu du postala bidaltzen duenak harrokeriaz egiten duela, etxean geratu denari zein urrutira joan den adierazteko, hain zuzen; usteak erdia ustel, ordea. 1.000 km-ra egon arren gogoan zaitudala adierazteko egiten dut. Abestiak dioen lez, *Zaindu maite duzun hori*. Eman poza postariari ere.



"ALTZA PORRU" liburua eskuratu nahi duzu?

Ttakunek bere bazkideen artean "Altza Porru" komiki liburua zozketatuko du. Ttakuneko bazkide bazara eta zozketan parte hartu nahi baduzu, eman izena irailaren 22a baino lehen. Zorte on!



Non eman izena?
943 37 14 48
harpidetza@ttakun.eus
Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria

Done Jakue merkatuaren bigarrena, asteburuan

Ostiraletik hasita igande iluntzera arte herrigunea hartuko du azokak. Artisautza postuez gainera, kale antzerkiek, kalejirek eta kontzertuek girotuko dute Lasarte-Oria. Aurtengo berrikuntza nagusia da hegazti harrapakarien hegaldi erakusketa.

Txintxarri

Bide guztiak Santiago de Compostelarantz doaz. Baita Lasarte-Oriatik igarotzen dena ere. Eta Done Jakue bidea herriatik igarotzen dela gogorarazteko, asteburuan Erdi Aroan murgiltzeko gonbita luzatu dute, Done Jakue merkatuaren bidez. Iazko arrakasta ikusirik, sustatzaileek bigarren aldia antolatzea erabaki dute. Eta berrikuntzak ekarri dituzte: hegazti harrapakarien hegaldien erakusketa izango da. Gainera, merkatuko postuez gain, kale antzerkiek eta musikak girotuko dute herrigunea.

Azokaren sustatzaileek aurkeztu dute ekitaldia: Jesus Zaballos alkateak, Maite Iglesiak Kultura zinegotziak, Juantxi Ugarte Kultura teknikariak eta Pedro Carrasco Xacobeo 2021 Camino del Norte etxekoak.

Ostiral arratsaldetik igande iluntzera bitartean, Okendo plaza, Elizatze plaza eta Kale Nagusia hartuko ditu azokak. Izan ere, biribilgune batetik bestera trafikoari itxita egongo da kalea. Ehun bat artisaren postu izango ditu azokak, askotariko produktuekin.

Baina horrez gain, aisirako aukera ugari eskainiko ditu Done Jakue merkatuak. Carrasco



Azokaren sustatzaileak, aurkezpenean, joan den astelehenean. TXINTXARRI

antolatzaileak adierazi duenez, "oso parte hartzailea" izango da ekitaldia. Izan ere, 11 tailerretan eskulanak ikasi ahalko dira. Besteak beste, dirua, oihala, ardo botak, edo zintzarriak egiteko ikastarotxoak antolatu dituzte.

Hegazti harrapakariak, gertutik Berrikuntza nagusia hegazti harrapakarien hegaldi erakusketa izango da. Asteburu osoan hainbatetan egingo dute, Kale Nagusian. Gerturatzen direnek

aukera izango dute animalia hauei buruz gehiago jakiteko, eta bertatik bertara hegan egiten ikusteko.

Sustatzaileek herritarrei dei egin diete azokara gerturatzerara, eta giroan murgiltzera. Ez dute zaila izango horretarako. Izan ere, kalejira ugari eta kale antzerkiak han eta hemen egingo dituzte. Musikak ez du hutsik egingo. Barzania taldea gonbidatu dute azokara. Musika zelta jotzen du, "era ikusgarrian", antolatzaileen hitzetan.

Kutxa Kultur Festibalak herriko kaleak ere girotuko ditu igandean

Udalak eta Aterpea merkatarien elkarteak antolatuta, 'Pintxo Musika' ekimena izango da igandean: musika, jana eta edana

Maddi Noriega

Gaur hasi eta igandean amaituko den Kutxa Kultur Jaialdia, ez da hipodromoko eremura soilik mugatuko; herriko kaleetan ere izango dira ekintza bat baino gehiago.

Lasarte-Oriako Udalak eta Aterpea merkatarien elkarteak antolatuta, hainbat pintxo dastatzeko aukera izango dute herritarrek, musikak girotuta.

Bezeroek, hiru euroren trukean eskuratu ahal izango dute pintxoak

eta garagardoa, eta guztira, hamaika taberne hartuko dute parte: Arkupe, Also, La Vie, Lasarte, Yolanda, Jalgi eta Jalai tabernatan, Buenetxea eta Viña del Mar kefetegietan, Abend garagardotegian, eta baita Usoak pubean ere. Hauek prestatutako mokaduek hipodromoan joko duten taldeen izenak izango dituzte.

The Roadhouse (12:00etan, Ola kalean), Indian Feather (13:00etan, Jaizkibel plazan), eta Psychoacoustic (14:00etan, Landaberri DBH aurrean) taldeen kontzertuak izango dira.



Herriko tabernariak Pintxo Musika ekimena aurkeztu zuten unean. TXINTXARRI

Egitaraua

Ostirala 15

- 17:00 Azoka, tailerrak eta antzertokia irekiko dute. Haur jolasak eta kalejira.
- 17:30 Tartaruga antzerkia.
- 18:00 Eulali: ipuin kontalariak. Tailerrak: xaboi burbuila. Hegazti harrapakarien hegaldi erakuskaldia.
- 18:30 Kalejira: Xaribari. Teatrak la calle.
- 19:00 Tartaruga antzerkia.
- 19:30 Hegazti harrapakarien hegaldi erakuskaldia.
- 20:30 'Pedrit Onewheel', Gizon-orkestra.
- 21:30 'El clan de los guerreros', Teatrak la calle

Larunbata 16

- 10:30 Kalejirak.
- 11:00 Merkatua irekiko dute.
- 11:30 Haur jolasak. Tartaruga antzerkia 'El Rataurante'.
- 12:00 Kalejira animazioa. Eulali: ipuin kontalariak. Musika animazioa: Gizon-orkestra eta Barzonia
- 12:30 Kale antzerkia: 'Reina de los guerreros de los valles del Kuruma'. Hegazti harrapakarien hegaldi erakuskaldia.
- 13:00 Tailerra: xaboi burbuila.
- 14:00 Kale antzerkia.
- 17:00 Musika eta orkestra merkatu osoan barrena. Eulali: ipuin kontalariak. Kale antzerkia. Hegazti harrapakarien hegaldiaren erakusketa.
- 18:00 'Pedrit Onewheel', Gizon-orkestra.
- 19:00 Barzonia zelta musika taldea.
- 21:30 Ikuskizuna: musika eta sua, antzerkia bidez.

Igandea 17

- 11:00 Merkatua irekiko dute.
- 11:30 Musika eta antzerkia merkatu osoan barrena.
- 12:00 Eulali: ipuin kontalariak. Tartaruga antzerkia: 'El Rataurante'.
- 12:30 'Pedrit Onewheel', Gizon-orkestra.
- 13:00 Musika animazioa: Barzonia.
- 13:30 Kale antzerkia: 'Unicornio Mágico', Teatrak la calle.
- 14:00 Tartaruga antzerkia 'El Rataurante'. 'Pedrit Onewheel', Gizon-orkestra.
- 17:30 Barzonia zelta musika taldea. Eulali: ipuin kontalariak.
- 18:00 Teatrak la calle: 'Despertad de la siesta'. Tartaruga antzerkia.
- 18:30 Tailerra: xaboi burbuila.
- 19:00 Barzonia zelta musika taldea.
- 19:30 Antzerkia eta kaleko animazioa: Orkestra-gizona.
- 20:30 Kale antzerkia: 'Reina de los guerreros de los valles del Kuruma'.
- 21:30 Merkatua itxiko dute.



Euskal jantzien ikastaroko ikasleen erakusketa izan zen iaz Euskararen 9. Maratona. TXINTXARRI

Euskal jantzi eta dantzak, guztien eskura

Euskal jantzi berria egin edo zaharra biziberritu nahi duzula; plaza dantzetan lehen pausoak eman edo pausoak hobetu nahi dituzula... Ttakun KEK antolatutako Euskal jantzi tradizionalen ikastaroak eta plaza dantza saioek aukera eskaintzen dizute

Nerea Eizagirre

Euskal Jaiak nahiz Gabonak atea joko ditugu. Euskal jantziak armairutik atera, hautsa kendu eta ongi geratzen den ikusteko momentua iritsi da. Askok jantzia prest izango dute, baina egongo da zatiren bat ongi ez duenik edo jantzia berritu behar duenik ere. Hori dela eta, beste urte batez, Ttakun KEK jantzi tradizionalen ikastaroa eskainiko du.

Ione Artola irakaslearen laguntzaz, gona, atorra, mantala, galtzak, kaikua... jantzi tradizionala osatu ahal da.

Ttakuneko Kultura saileko arduradunek aipatutakoaren arabera, aurreko urteetako arrakastari erantzunez antolatu dute ikastaroa.

Saioak urrian eta azaroan eskainiko dira, astearte eta ostegunetan, 15:30etik 17:30era, Emakumeen Zentro Zibikoan. Antolatzaileek gogorarazi dutenez, ikasleek materiala eramane behar dute.

Izena ematea Ttakuneko bulegoan edo 943 371 448 eta 695 785 389 telefonoetara deituz egin daiteke. Ttakuneko bazkideek 22 euroko kuota ordainduko dute, eta bazkide ez direnek, 25 euro. Irailaren 29an amaituko da izena emateko epea.

Giro ederra euskaraz

Noelia Bermejok iaz eman zuen izena lehenengoz eta gona bat berritu zuen. "Etxean nuen gona bat oinarri hartu eta oihal zati bat gehitu nion," azaldu du.

"Giroa oso ona dago. Ni gazteenetarikoa nintzen, ez nekien makina nola funtzionatzen zuen... eta irakasleaz gain, beste kideak ere laguntzeko prest zeuden beti," adierazi du.

Margari Lazkanok berriz, hiruzpalau urtetan parte hartu du ikastaroan. Bi jantzi oso egin ditu, bata alabarentzat eta bestea bilobarentzat; bat zaharberritu du. "Txikia zuen alabak eta oihal batzuk gehituta berritu genuen". Eta bere jantzia osatu du, "txaketa

polita nuen eta horrekin bat zetorren oihalarekin gona bat egin nuen".

"Oso gustora egoten gara bertan. Giroa aproposa sortzen da euskaraz hitz egiteko. Josten den bitartean, edozein gaitiaz hitz egiten dugu," aipatu du.

Plaza dantza

Euskal jantziaren gain, euskal dantzetan trebatzeko aukera ere eskaintzen du Ttakun KEK, plaza dantza saioei esker.

Ekimen honetako lehen eguna irailaren 26an, 20:00etan izango da eta ikasturteko nondik norakoak zehaztuko dira, hala nola, zein dantza mota landu edo hastapeneko taldea sortuko den.

Deialdia irekia da, aurreko ikasturtean saioetan ibilitako jendea, zein lehen pausoak eman nahi dituztenak gerturatu daitezke honetara.

Ttakun KEK Kultura sailak herritarrak animatu nahi ditu ikastaro hauetan parte hartzera.



TXINTXARRI

Urte luzez emandakoa jaso dute

Sortu Lasarte-Oriak antolatuta, makina bat herritar elkartu ziren euskal preso senide diren Apoloni Otxandorena, Luix Kastresana eta Toñi Ruizi harrera beroa egin eta hainbat urtez egindako lan eskergarengatik eskerrak ematera. Hunkituta jaso zuten aitortza hiru protagonistek.

Basaundi bailarako berrurbanizazio proiektua, martxan

Sestra Ingeniaritza eta Arkitektura SL enpresa arduratuko da Lasarte-Oriako Basaundi bailara berrurbanizatzeko proiektua egiteaz. Enpresak lau hilabeteko epea du txostena egin eta aurkezteko. 23.999,75 eurokoa da enkarguaren kostua.

Proiektuak zehaztu beharko ditu oinezkoen, ibilgailuen eta belardien gunek berrurbanizatzeko eta birgaitzeko obrak nolakoak izango diren. Gaur egungo irisgarritasun arazoak ere konpondu beharko ditu, indarrean dagoen legediara egokitzuz betiere. Era berean, bailarako azpiegiturak eta

zerbitzuak berritu beharko ditu, aireko kableak lurperatuz.

Basaundi bailarako bizilagunen iritzia kontuan hartuko du Sestra SLk, berrurbanizatzeko prozesua egiterakoan. Auzoa hobetzeko dituzten irizpide eta proposamenei buruz galdetuko die.

Lasarte-Oriako Udalak proiektuaren faseak jakitera eman ditu: lehen hilabetea igaro eta gero entregatu beharko du aurreproiektua Sestra enpresak; jarraian, bizilagunekin partehartze prozesua egin beharko du; auzotarren iritzia entzun eta jaso ostean, hamabost egun izango ditu irizpideen dokumentua lantzeko, herritarren ekarpenak barne; eta, hortik bi hilabetera, behin betiko proiektua aurkeztu beharko du.



ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51

Extremadura etxearen festak, Lasarte-Orian

Extremeña elkarteko kideentzat, festa asteburua izan zen iragan astekoa. Guadalupeko Ama Birjina omentzeko ospakizunak egin zituzten ostiral, larunbat eta igandean.

Goizean goiz eman zioten ongi etorria larunbatari. 02:00etan, Extremadurako 'migak' janaz ekin zioten egunari. Ostean, haurrentzako pintura lehiaketa eta jokoak, 'Ecos de Monfragúe' taldeak lagundutako meza, herri bazkariarekin igaro zuten eguerdira arteko tartea, eta arratsaldeko ekintzak izan ziren gero. Horrela, karaokean ahotsak findu ostean, gaztetxoek txokolate beroa dastatzeko tartea izan zuten. Indarrak berrituta, Jalguneko kideak oholntza gainera igo, eta *El carretín* jota dantzatu zuten oholntza gainean. Gauean, afari herrikoia ostean, 'Ibai Berriak' taldea arduratu zen festa goizaldera arte luzatzeaz.

Andaluziako doinuez gozatu ahal izan zuten, berriz, igande goizaldean. Eguerdian, Extremadurako eltzekaria jateko herri bazkaria egin zuten, eta arratsaldean, berriz, bola jokoa aritu ziren. Jai asteburuari amaiera emateko, Donostiako Extremadura etxeko 'Virgen de Guadalupe' koru eta dantza taldearen emanaldiaz gozatu ahal izan zen, eta bandera jaisierarekin bukatu zuten.



Askotariko musika doinu eta dantzak entzun eta ikusteko aukera izan zen. TXINTXARRI



Extremadurako doinu eta dantza ugari abestu eta dantzatu zituzten Lasarte-Oriako 'Virgen de Guadalupe' elkarteak.



Urtero legez, Guadalupeko Ama Birjinaren omenez, meza egin zuten elkarteak. TXINTXARRI



'Virgen de Guadalupe' elkarteko kideek afaria egin zuten unea. Udal ordezkariak ere bertan izan ziren. TXINTXARRI



antolatutako ospakizun jaietan. TXINTXARRI



Beste zenbait taldeen artean, Lasarte-Oriako 'Zambra' taldeak dantza emanaldia eskaini zuen. TXINTXARRI



Haurrentzako zenbait ekintza ere antolatu zituzten; irudian txokolatada egin zen unea. TXINTXARRI



Jalguneko lagunek *El carretín* jota eskaini zieten plazan bildutako ikus-entzuleei. TXINTXARRI

Adrian Garcia

Arraunlari gaztea da Intza Fernandez (Lasarte-Oria, 1996), baina dagoeneko bi Kontxako Banderetan lehiatu da. Ez da lehiaketa garrantzitsuagorik arraunean, eta uneaz gozatu du Fernandezek. Gainera, ahazteko zaila izango du Kontxan jokatuako bigarren txanda, olatu dantza baten erdian arraun egin baitzuen Donostiara traineruan.

Berezia izan behar du Kontxako Banderan lehiatzea, ezta? Bitan egin duzu dagoeneko. Zer sentsazio eragiten du horrelako estropada batean aritzeak?

Oso desberdina da. Gure estropadetara jende gutxi joan ohi da ikustera. Baina Kontxakoa izugarria da, gertutik nabaritzen duzu jendearen babesak. Denboraldia amaitzen dugu Kontxan, eta sari baten antzekoa da. Urte osoa gaude Kontxako Banderari itxaroten.

Aurtengo estropada denbora luzez gogoratuko da, batez ere, bigarren txandan izandako itsaso zakarragatik.

Niri gustatzen zait horrelako itsasoarekin arraun egitea. Beldurrik ez nuen, irrikaz negoen estropada jokatzeko.

Proba bertan behera uzteko zorian egon ziren. Urduritasun uneak izango ziren haiek, ezta?

Bai, baina ni nahiko seguru nengoen jokatu zela. Ez zitzaidan burutik pasa bertan behera utziko zutela.

Zure ustez, ongi egin al zuten proba bertan behera ez uzten?

Nire ustez, bai. Itsasoa arriskutsua zegoen, baina segurtasun neurri asko hartu zituzten. Traineru bakoitzaren atzetik sorosleak zihoazen, txalupa batean. Trainerua iraultzea oso zaila da, baina arriskutsua da patrioiarentzako, zaila duelako orekari eustea. Gogorragoa ere bada estropada, ziabogara iristea gehiago kostatzen du.

Baten batzuk kexatu ziren itsasoa arriskutsuegia zegoela eta.

Iaz jokatu genuen estropada bat horrelako baldintzetan, Zumaian. Gainera, bandera irabazi genuen. **Ziabogan arazo batzuk izan zenituzten joan den igandean.**

Ziaboga iritsi aurretik, barrutik ematera gindoazen. Urduritasunagatik edo, patrioiak ez zituen aginduak behar bezala eman: ababorrak tiratzeko esan zuen, baina istriborrak tiratu behar zuen. Geldi egon ginen,

"Gogoko dut olatuekin arraun egitea; hasteko irrikaz nengoen"

INTZA FERNANDEZ ARRAUNLARIA

Ziabogan izandako arazoak gorabehera, gustura dago Fernandez Kontxako Banderako emaitzarekin. Onartu du Donostiarraren lehen urtea "gogorra" izan dela



Intza Fernandez, Donostiara traineruan. INTZA FERNANDEZ

eta kanpora atera behar izan genuen. Gainera, aurrekoari [ziabogan bira ematen laguntzen dionari] arrauna hautsi zitzaion. Zabalegia egin genuen ziaboga. **Horrelako itsasoarekin, ezinbestekoa izango da patrioiaren eta arraunlarien arteko erabateko koordinazioa.**

Bai, eta aurreko arraunlariak lagundu egin behar dio, trainerua gehiegi ez desbideratzeko.

Zer moldaketa egin behar zaizkio traineruari itsaso txarrarekin aritzeko?

Palka handiago bat jarri behar izan genion, ur gutxiago sartzeko brankatik. Gero, seigarren postuko bi arraunlariak gerrikoarekin lotuta joan ziren. Aldeetatik ere babesak jarri genituen, ur gutxiago sartzeko, eta, ur-ponpak, ura ateratzeko.

Azkenean, zazpigarren geratu zarete. Gustura al zaudete emaitzarekin?

Balorazioa ona da. Kontuan edukita ziabogan eduki genuen geldialdi hori, ez da postu txarra. Gustatuko zitzaigukeen bosgarren-edo sailkatzea, baina baldintzak ez dira eman.

Gasteizen ikasten duzu. Nola uztartzen dituzu ikasketak eta entrenamenduak?

Elikagaien Zientzia eta Teknologia ari naiz ikasten. Neguan entrenamendu fisikoak izan ohi dira, gimnasioan egitekoak. Bakoitzak bere kontura entrenatzen du, eta nik entrenatzaileak bidaltzen dizkidan entrenamenduak egiten

ditut. Gero, asteburuan ateratzen naiz uretara taldekideekin. Udaberri aldean ostegunetan saiatzen naiz itzultzen, eta soilik bi entrenamendu galtzen ditut. Gimnasioan egiten dut haiek uretan egiten dutena.

Entrenamendu batzuetara huts eginda ere, arraunlari finkoa zara traineruan.

Bai, eskarmentu handienetarikoa duen arraunlaria naiz. Normala da finkoa izatea.

Aurten seigarren urtea duzu arraunean. Zerk bultzatu zintuen paladak ematera?

Kontxako estropadak ikusten ari nintzen, eta bat-batean okurritu zitzaidan. Beste kirolak ez zaizkit gustatzen, eta proba egitea erabaki nuen.

Zer da arraunetik gehien gustatzen zaizuna? Zerk erakartzen zaitu?

Inoiz ez da guztiz ikasten ondo arraun egitea. Beti dago zerbait hobetzeko. Horrek behartu egiten zaitu zure buruari gehiago eskatzera, eta harrapatu egiten zaitu horrek.

Getaria-Zarautz taldean ibili zinen iaz, taldea desagertu zen arte. Une zailak izan al ziren haiek?

Bai, zeren bloke indartsua egin genuen, eta pena izan zen taldea uztea, emaitza gero eta hobeak lortzen ari baiginen. Baina gero erraza egin zitzaidan taldea aurkitzea, Donostiarrak emakumeen taldea atera nahi zuelako.

Traineru berria da Donostiarrarena. Nolako urtea izan da?

Nahiko gogorra. Azkenean lortu dugu nahiko maila ona erakustea, baina ez da erraza izan. Jendeak ez zuen esperientzia handirik, eta lanak izan ditugu entrenatzeko trainerua osatzeko. Halere, espero genuena baino maila hobe eman dugu.

Gainera, emakumeen trainerua dela eta, giroa gaiztotu da Donostiako taldeen artean.

Saiatu gara albo batera geratzen, eta kasu gehiegirik ez egiten polemikari. Saiatu naiz horretaz ez hitz egiten, baina azkenerako erreta amaitu dut. Kanpotik asko astindu gaituzte.

Hurrengo urteari begira, zer helburu dituzu?

Arraunean jarraituko dut, baina ez dakit non. Getaria-Zarautz utzi nuenean, banuen buruan maila altuagoko traineru batean hastea. Jakin arren zaila izango dela postua irabaztea, gustatuko litzaidake lehia horretan sartzea, gehiago ikasteko.



Zortzi urte daramatza Euskal Herrian Andrea Martinek, eta horietatik azken hirurak arraunean igaro ditu. TXINTXARRI

"Ausart sentitu nintzen; pentsatu gabe irten ginen arraun egitera"

ANDREA MARTIN ARRAUNLARIA

Kontxako Bandera hobea egitea espero zuen Andrea Martinek, baina oso pozik dago urte guztiko lanaren ondorioz lortutako emaitzarekin. Igandekoa lehen aldian zuen itsaso zakarrean

Maddi Noriega

Orain hiru urte itsasoratu zen lehenengoz traineru batean Andrea Martin (Avila, Espainia, 1981) arraunlaria. Orduz geroztik, gogor entrenatuz eta eguneroko bizitzarekin uztartuz, goi mailan lehiatzera iritsi da. Ez zen saiirik errazena izan igandekoa Orioko arraunlariarentzat, ezta bere taldearentzat ere; itsasoa zakar egon zen oso, eta horrek ondorioak izan bazituen ere, balorazio positiboa eginaz amaitu dute denboraldia Hirugarren

gelditu dira ligan, eta bosgarren Kontxan.

Avilan jaioa zara. Nola sortu zitzaizun arraunean aritzeko gogo?

Euskal Herrira iritsi nintzenean, Zumaian egon nintzen bizitzen. Bertan ikusi nituen emakume eta gizonak arraunean, eta jakin mina piztu zitzaidan. Olarru Egun bat iritsi, eta batel proban parte hartzeko aukera izan nuen. Orduetik, arraunarekin kontaktuan jartzeko gogo sentitu nuen.

Lasarte-Oriara etorri nintzen gero, eta nire bikotekidea Orio

arraun elkarteko zale amorratua da. Nire gogoei bere animoak gehituta, arraun elkartera joan eta arraun egiteko zer egin nezakeen galdetu nuen. Kirolik egiten nuen galdetu zidaten, eta korrika ibiltzen nintzen orduan. Orduko entrenatzaileak frogatzen zidan, eta aurrera jarraitzeko aukera eman zidaten.

Baina une horretan ezin izan zenuen Orion aritu.

Ez. Urte horretan jende gehiegi zegoen Orion, eta Hibaikan

arraunlariak behar zituztenez, bertan egin nuen denboraldia.

Handik urtebetera, berriz, Hibakan hasi nuen denboraldia, baina entrenatzaile aldaketa egon zen Orion; Santi Zabaleta sartu zen elkartean, eta Oriora aldatu nintzen. Ni bezalako hasiberri batentzat oso irakasle ona izan da; esperientzia handia du, eta izugarri ikasi dut berarekin.

Senitarteko eta lagunek zer diote?

Erotuta nagoela esaten didate. Arraunari eskaini beharreko denbora medio, ezin dut herrira, senitartekoak ezta lagunak bisitatzerara joan ere. Eurak etortzen dira ni hona bisitatzerara. Gogorra da familiarentzako, mugatuta nago eurekin edozer egiteko. Pazientzia handia eduki behar da.

Eliteko kirolaria izanda, zaila izango da kirola eta bizitza pertsonala uztartzea, ezta?

Bai, nahiko zaila. Bizitza soziala ere desagertu egiten da, beste erritmo batean bizi gara, eta jendea aspertu egiten da horrekin, ezin dute erritmo horretara egokitu; arraunean hasi nintzenetik, ni egokitu behar izan naiz inguruko egunerokora.

Nik ingurukoekiko laguntza eta babes handia dudalako moldatzen naiz hain ondo, baina hori gabe, ezinezkoa litzateke.

Arraunetik zerk erakartzen zaitu gehien?

Arrauna egitea asko gustatzen zait, baina talde guztia batera, helburu berdinarekin bila elkarrekin joatea da gehien gustatzen zaidana. Azken finean, helburu berbera bat lortzeko elkarrekin egiten dugu lan, denok batera, erabat sinkronizatuta gaude, eta hori oso polita da.

Igandeko itsasora ateratzeko inoiz baino beharrezkoa izango zen talde lana, ezta?

Bai, hala da. Igandeko itsaso zakarraren aurrean, denok elkarrekin batera egin behar izan genien aurre olatuei; babestuta sentitzen zara. Hamalau goaz, baina bat izango bagina bezala. Talde sentimendua oso polita da. Aurten oso talde polita izan dugu, eta gogorra izan arren, jarraitzeko indarra ematen du. Denak helburu berberaren bila joango ez bagina, ez luke zentzurik izango.

Bigarren aldian da Kontxako Banderan lehiatzen duzula?

Lehenengo urtean, Kontxako Bandera jokatzeko sailkapenean parte hartu nuen bakarrik. Aurten, ordea, Kontxako Banderaren bi igandeetan egin dut arraun.

Eta zein sentsazio izan dituzu?

Izan nitzakeen sentsazio guztiak izan ditut, baina, batez ere, itsasoarekiko errespetu handia sentitu dut. Itsaso zakarrean ateratzen nintzen lehen aldian zen; entrenamenduetan, itsasoa oso zakar dagoenean, ez gara itsasoratzen. Igandeko egoeraren aurrean, ez nekien zer sentitu ahal izango nuen.

Zer suposatzen du zuretzat Kontxako Banderan lehiatzeak?

Arraunlari batek parte har dezakeen arraun probarik handiena da Kontxako bandera. Azken finean, Kontxako Banderan arraun egiteko aukera izateak, urte guztiko lana ondo egin duzula esan nahi du, entrenatzaileak finkatutako helburuetara heldu zara, eta urte guztiko lanaren trukean jaso daitekeen saririk onena da.

Denok oroituko dugu aurtengo Donostiako lehia bigarren igandegatik. Nola bizi izan zenuen?

Urduritasun handiz. Ez genekien arraun egin ahal izango genuen edo ez. Gogoratzen dut taldeko furgoneta barruan zain egon ginela, lehiaketa mantenduko zela jakinarazi ziguten arte; janzteko eta itsasoratzeke agindua eman ziguten arte. Urduritasun handiz bizitzen dira une horiek, kontzentrazioa ere beharrezkoa da probaren aurretik, eta igandeko egoerak hori zertxobait zaildu zuen.

Eta lehia mantenduko zela baieztatu zuten unean?

Ausart sentitu nintzen. Egoeran gehiago pentsatu gabe atera ginen arraun egitera. Inork ez zuen planteatu ere egin zegoen itsaso zakarrarekin ez zuela arraunik egin nahi. Izan genitazakeen ondorio guztiakin atera ginen arraun egitera. Ontziak nola prestatzen dira ur zakarrerako?

Itsaso barearekin arraun egiten dugunean jartzen ez zaizkion gehigarri guztiak jartzen zaizkio horrelako itsaso zakarrarekin. Azken finean, ura traineruan sartzea ekiditeko gehigarriak dira; olatuek horien aurka jotzen dute, eta itsasontzian sartzea ekiditen dute.

Nola aldatzen da arraun egiteko modua itsaso zakarrarekin?

Itsaso barearekin har daitekeen azkartasuna ezin daiteke hartu itsaso zakarrarekin. Itsasoak ez du onartzen 30 paladatik gora hartzea. Itsaso ona dagoenean, berriz, 36 palada hartzen ditugu normalean. Arraunaldia ere oso ondo amaitu behar da, teknika eta kontzentrazio handiagoa eskatzen du itsaso zakarrak.

Brontzea Chourrautek, Munduko Kopako proban

Denbora onena lortu du lasarteoriatarrek, baina bi segunduko zigor batek aldendu du lehen postutik. Urrezko eta brontzezko bi dominekin, bosgarren postuan sailkatu da Munduko Kopan. Orain, hilaren bukaerako Munduko Txapelketan du arreta osoa



Jessica Fox, Ricarda Funk eta Maialen Chourraut. TXINTXARRI

Txintxarri

Munduko probako azken proba jokatu du Maialen Chourraut piraguistak, La Seu d'Urgellen, Katalunian. Lasarteoriatarrek ongi baino hobeto ezagutzen du kanal hori, hor entrenatzen baitu. Halere, ez du garaipenik lortu Chourrautek, baina brontzezko domina kolokoratuta itzuli da etxera. Jaitsiera azkarrena egin du, baina ate bat ukitu zuen, eta bi segunduko zigorra jarri diote. Garaileak baino 1:33 minutu gehiago egin zituen.

Ezusteko gehiago ere izan zituen: piragua hautsi egin zitzaion, eta finalerako konpondu egin behar izan zuten.

Munduko Txapelketa

Ricarda Funk Alemaniako piraguistak lortu zuen garaipena. Jessica Fox australiarra igo zen podiumeko bigarren koskara. Munduko Kopako bost probak jokatu, bosgarren postuan sailkatu da Lasarte-Oriako piraguista. Pragan lortutako urreari eta joan den asteburuko

brontzeari esker lortu du Chourrautek Munduko Kopako bosgarren postua. Izan ere, Italiako proban ez zuen parte hartu. Pragakoa munduko zirkuituko lehen proba izan zen, eta hasi bezala bukatu du piraguistak txapelketa: podiumera igota. Baina Chourrautek dagoeneko burua Munduko Txapelketan du jarria. Iraila bukaeran jokatu da, Pauen, Frantzia. Kataluniako proba baliagarria izan zaio lehiaketan sartzeko.



Añorgako jokalar bat, baloia babesten, eibartarren presiopean. TXINTXARRI

Realak eta Añorgak etxetik kanpo galdu dute bigarren jardunaldian

Bi taldeek aukerak izan arren, 0-1 galdu dute. Erregional Preferenteko Ostadar SKTk laugarren egin du Andoianen

Txintxarri

Ezin izan zuten garaipenik eskuratu ez Realak, ezta Añorgak ere, asteburuan jokatuako norgehiagoketan. Atletico de Madrid taldea izan zuen aurkari donostiako hamaikakoak, Lehenengo Mailan. Añorgak, berriz, Eibarren aurka jokatu zuen, Bigarren Mailan. Biek 0-1 galdu zuten.

Talde txuri-urdinak baja garrantzitsu asko zituen. Lasarte-Oriako Iraia Iparragirrek ere ez zuen jokatu.

Añorgak ere ez zuen garaipenik eskuratu ligako bigarren

jardunaldian, lehen zatian nagusi izan arren. Bigarren zatian, berriz, jokoa nahiko parekatua izan zen, baina azkenean, 89. minutuan Eibar markagailuan aurreratu zen. Lasarte-Oriako Izaskun San Anicetok eta Itsaso Contrerasek jokatzen dute Donostiako taldean.

Erregional preferentea

Andoainen jokatu zuten Erregional Preferente mailako Ostadar SKTko mutilek. Laugarren egin zuten Larramendi torneoan, Trintxerperen aurka penaltietan galdu ostean.

FUTBOLA

ERREGIONAL PREFERENTEA

Sanpedrotarra F.E - Ostadar SKT
Larunbata. 15:30. Trintxerren, Pasaian.

JUBENILA OHOREZKO MAILA

Ostadar SKT - Aloña Mendi KE
Larunbata. 17:15. Michelinen.

JUBENILEN LEHENENGO MAILA

Ostadar SKT - Axular KKE
Larunbata. 15:30. Michelinen.

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Hernani - Ostadar SKT
Larunbata. 12:00. Zubipen, Hernanin.

KADETEEN LEHENENGO MAILA

Ostadar SKT - Danena KE

Larunbata. 12:45. Michelinen.

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Oviedo RC - Baby Auto Zarautz KE
Igandea. 12:30. C. del Naracón, Oviedon.

LAGUNARTEKOAK 16 URTEZ AZPIKOAK

Beltzak RT- La Unica
Larunbata. 10:30. Astin, Zarautzen.

LAGUNARTEKOAK 18 URTEZ AZPIKOAK

Beltzak RT- La Unica
Larunbata. 12:30. Astin, Zarautzen.

SASKIBALOA

ERRENDIMENDUZKO JUNIORRAK

Ostadar SKT - Atletico San Sebastian

Larunbata. 16:00. Kiroldegian.

MENDI LASTERKETAK

NAFARROA XTREAM 67 K

Mendiko ultra jokatuko dute Atarrabian. Javier Olazagoitia herritarrek parte hartuko du. 67 kilometro eta 4.000 metroko desnibel positiboa gainditu beharko du.

Larunbata. 08:00. Atarrabian.

NAFARROA XTREAM 32 K

Mendiko lasterketa jokatuko dute Atarrabian. Joseba Iparragirre herritarrek parte hartuko du. 32

kilometro eta 1.900 metroko desnibel gainditu beharko du.

Igandea. 09:00. Atarrabian.

HERRI LASTERKETAK

X. BAXURDE KROSSA

Lasarte-Oriako sei lasterkarik parte hartuko dute Usurbilgo lasterketan. Hamar kilometro bete beharko dituzte.

Igandea. 10:30. Usurbilen.

PLAZAOLAKO MARATOIA

Herriko 11 lasterkarik parte hartuko dute Plazaolako maratoian. Lekunberritik Andoaingorainoko bidea egin beharko dute, trenbide zaharretik. Horrez gain, 26

kilometroko lasterketa bat ere egongo da.

Igandea. 09:00. Lekunberrin.

TXIRRINDULARITZA

LEHENAKARI MAILA

XXX. Oñati proba.
Larunbata. 10:00. Oñati.
VII. Zalbidia Sari Nagusia.
Igandea. 10:00. Zaldibia.

PILOTA

1. MAILA ESKUZ BINAKA

Intza-Ilunpe
Ostirala. 19:30. Michelingo frontoian.

3. MAILA ESKUZ BINAKA

Intza-Zumaia
Ostirala. 19:30. Michelingo frontoian.

Emaiozu buelta bat zure munduari euskararekin 2017-18



ONDO iBiLi!

BEKA matrikularen arte %85a

ABIAPUNTUA

Zu zeu eta zure errealitate linguistikoa.

IBILBIDEAK

- Aurrez aurreko ikastaroak, hainbat iraupen eta intentsitatetakoak.
 - Maila guztiak.
 - Ordutegi zabala.
 - Txandaka aritzeko aukera...
- On-line ikastaroak, autoikaskuntza...

AGENTZIAK

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Bekokale bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.eus
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 15era

Munteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behea
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@aek.eus
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 30era

Bidaia ezazu zuzenean herriko agentzia batekin, ziurtasun osoz.

GELDIALDIAK

- Haurrarekin hitz egitea...
- Gauza laburrak idaztea...
- Titulu bat eskuratzea: B1, B2, C1, C2
- Lagunekin, lankideekin, familiakoekin euskaraz aritzea...
- Euskarazko kultura, esperientziak, jarduerak hobeto ulertzea, parte hartzea, parte izatea...



ONDO iBiLi!

BALDINTZAK

Lasarte-Orian erroldatua egotea, ikastaroa hasi baino egun bat lehenagotik ikastaroa amaitu bitartean.

16 urte beteak izatea ikastaroa amaitzen den egunean.

Ikastaro hauetakoren bat egina izatea:

- 1- Euskaltegiko ikasturtean zeharreko ikastaroa, gutxienez 80 ordukoa.
- 2- Barnetegia, gutxienez hilabete segidan baldin bada.
- 3- Udako ikastaroak (ikasturtean zehar aurreko ikastaro-mota horietako bat egin duten ikasleen kasuan bakarrik)

Gutxienez % 85eko asistentzia eta gutxienerako aprobetxamendua gaituztua.

Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera.



Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.eus



lazo zeharkaldiaren irudi bat. Aurten itsaso zakarra izan zute igerilariak. EASO IGERIKETA TALDEA

Ur irekien denboraldiari amaiera ona eman diote

Kontxako Badiako Igerialdian 11 herritarrek parte hartu dute. Infantil kategoriakoan lortu dituzte emaitza onenak: Leire Martinek irabazi du, eta Ainhoa Martinek hirugarren egin du. Ur irekien denboraldia amaituta, igerilekuan jardungo dute orain

Txintxarri

Uda bukatzen ari da, eta urtaro aldaketarekin batera, Lasarte-Oriako igerilariak ur irekiko zeharkaldiak igerilekuarengatik aldatzea beste erremediorik ez dute izango. Azkenetariko proba jokatu zen joan den larunbatean Donostian; Kontxako Badiako Igerialdian parte hartze zabala izan zuten herritarrek. Eta emaitzak ere onak izan ziren. Nabarmenezkoa infantil nesketan lortutako garaipena: Leire Martin izan zen azkarrena 740 metroak betetzen. Ainhoa Martin ahizpak osatu zuen podiuma, hirugarren postua eskuratuta.

Master 1 kategorian gertu egon zen Xabier Elizegi lehenengo hiruren artean sailkatzeko. Laugarren egin zuen, 2.220 metroak 26:24ko denboran osatuta. Irabazlea baino bi minutu geroago sartu zen helmugan. Kategoria guztiak kontuan hartuta 13. postuan sailkatu zen lasarteoriatarra.

Herrikideen emaitzak

Master 1 gizonak

- Xabier Elizegi: 4. (26:24).
- Oscar Gil: 72. (40:03)
- Gillermo Trombotti: 89. (42:58).

Master 2 mutilak

- Juan Vicente Martin 6. (28:51).

Juan Vicente Martin ere lehenengo hamarretan helmugaratu zen Master 2 kategorian, 28:51ko denbora onduta. Baita Irati Arzallus senior neska; bederatzigarren izan zen Arzallus, 29:20ko denborarekin.

Igerilari prestuak daude egun herrian, baina geroa ere ziurtatuta dago, batez ere

Master 1 neskak

- Eneida Garcia: 44. (44:38).

Senior neskak

- Irati Arzallus: 9. (29:20)

Infantil neskak

- Leire Martin: 1. (6:00)
- Ainhoa Martin: 3. (6:20)
- Joane Arzallus: 14. (7:12)
- Aintzane Sarobe: 53. (9:27)

Infantil mutilak

- Unai Somovilla: 9. (6:20)

infantilen emaitzei erreparatuta. Leire eta Ainhoa Martinek lehenengo eta hirugarren postua eskuratu zuten, hurrenez hurren. Mutiletan ere Unai Somovilla bederatzigarren sailkatu zen.

Denera 11 lasarteoriatarrek parte hartu dute. Kontxakoa proba aintzindaria da 1943. urtetik egiten dute.



Sanpedroetako pilota jaialdia. TXINTXARRI

Intza Pilota Eskolak hasi ditu dagoeneko entrenamenduak

Astearte eta ostegunetan izango dira saioak, Michelingo frontoian. Intza Kirol Elkarteak gaur hasiko ditu partidak

Txintxarri

2017-2018 denboraldia atzo hasi zuen Intza Pilota Eskolak. Ekaina bitartean gaztetxoek frontoiaz eta pilotaz gozatu ahal izango dute. Benjamin eta alebinentzat entrenamenduak asteartetan eta ostegunetan izango dira, 18:30etik 20:00etara. Infantil eta kadete kategoriakoak, berriz, 19:00etatik 20:00etara arituko dira. Entrenamendu guztiak Michelingo

frontoian egingo dituzte, ikastolako egutegia jarraituko dute. Prezioa 100 eurokoa izango da.

Izena eman

Izena eman nahi duen orok Michelingo frontoira azaldu beharko du astearte edo ostegunetan, entrenamendu orduetan. Bestalde, Intza Kirol Elkarteak gaur hasiko du denboraldia.

Lasarte-Orian nesken areto futbol taldea osatzeko deialdia

Eguzki areto futbol taldeak nesken taldea osatu nahi du. Horrela, hamasei urtez gorako neskei deia luzatu diete, senior mailako taldea osatu, eta modalitate horretan jokatzera animatu daitezten.

Lasarte-Orian badira areto futboleko jokatzeko duten zenbait talde, baina guztiak gizonetako jokalariek osatuak.

Eguzki futbol areto elkarteak proiektu berriari ekin dio. 1985. urtean sortu zuten taldea, eta Ventanas ISU babeslearen izenarekin jokatu dute Lurraldeko Lehen Mailan. Federatuak dauden areto futboleko talde guztiak batu dira orain herrian Eguzkira. Ostadar SKTk areto futbol taldea izateari utzi dio, eta Eguzkira batu da atal hori. Azkenean emakumeen taldea osatzea lortzen badute, denera Eguzkik bost talde izango ditu herrian.

Axari Trail mendi lasterketan fin ibili dira lasarteoriatarrek

Idiazabalen Axari Trail mendi lasterketa jokatu dute asteburuan, eta lau lasarteoriatarrek parte hartu dute. 25 kilometro eta 1550 metroko desnibel positiboa bete zuten laurak.


Ivan Granado izan da herritarren artean azkarrena (2:40). Mark Bagesek 3:02 ordu behar izan ditu helmugaratzeko. Beste bi parte hartzaileak Haritz

Curiel (3:12) eta Imanol Galarraga (3:16) izan dira. Ander Iñarra lezotarrak egin du denbora onena (02:02).

Baxurde Krossa

Lasarte-Oria Bai krosserako hilabete inguru geratzen da, baina oraindik badaude prestatzen joateko lasterketak. Herriatik gertu jokatu dira batzuk asteburu honeta. Usurbilek Basurde Krossa egingo dute. Hamar kilometroko lasterketa azkarra da.

ZORION AGURRAK



Mattin
Zorionak Mattin zure bigarren urtebetetzean!! Muxu handi bat amatxo, aitatxo eta Paulen partetik, txapeldun!



Nahia eta Miren
Bikote... Zorionak eta 6 muxu potolo gurasoen partetik!! Ondo pasa eguna txapeldunak!



Unax
Zorionak pottoko! Muxu handi bat zure zortzigarren urtebetetzean, asko asko maite zaitugu.



Eneritz, Malen eta Aizpea
Zorionak etxeko hiru sorgine!!! Urtek aurrera joan arren, beti bezain dotore zaudete!! Muxu bat familiaren partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitatekoak; hiru bide dituzu Txintxarriren bidez zorientzeko:

Internet
Txintxarri.eus-en
txintxarri.eus/zorionagurra eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan

argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali
txintxarri@txintxarri.eus
helbidera, eta idatzi:
izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

GUTUNAK

Erreta?

ANTONIA ADAN PEREZ

Gure herritik oso gertu erraustegiaren obrak aurrera doazela ikustean, galdera batzuk egitea gustatuko litzaidake: Zer egingo ote du gure alkateak (mozio bat onartzeaz aparte) mehatxu hori gelditzeko? Begibistan dago ezer ez du lortu.

Zer egin ahal dugu lasarteoriatarrok pozoin fabrika horren kalteak ekiditeko? Gutxienez, gure hondakinak sailkatuz gero, gure odolean amaitzen ez dutela jakingo genuen. Eta, politikaz aparte, autobabeserako ekintza izan liteke.

Organikoa sailkatzeko, zergatik erabili behar dugu behin eta berriro txartela? Zaborra nahastua botatzeko "errefusa frakziokoak" ez du inolako oztoporik. Astigarragan adibidez, zaborra nahastua doan edukiontzia erabilpena mugatuta dago.

Nahastutako zaborraren gehiengoa erraustegiaren erregaia izango dela jakinda, noiz hasiko da Udala "errefusa frakzioa" gehiago ordainarazten? Eta, zentzu berean, organikoa birziklatzen ari diren herritarrei, noiz ezarriko dizkie hobariak gure udalak? Adibidez, Gipuzkoako herri askotan bezala, Donostiako birziklatzaileek %15ko hobia dute.

Orain arte bezala, gure herria hondakinei dagokienez neurriak hartzen azkena izango ote da? Zergatik amaituko dugu erreta, erraustegiari buruz hitz egiteagatik edo ezer ez egiteagatik?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria / txintxarri@txintxarri.eus

OHARRAK

Kilometroetarako autobusa

Azken urteetan bezala, Ttakun Kultur Elkartek irailaren 24an, Oñatin ospatuko den Kilometroetara joateko autobusa antolatuta du Dobera elkartearrekin batera.

Autobusa 9:15ean aterako da Tajamar biribilgunetik, Hernaniko lagunak jaso ostean.

Tiketak Ttakun KEaren bulegoan eroski ahal dira astelehene ostiralera, 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara (astelehen goiza eta ostiral arratsaldea egoitza itxia dago). Elkarteko bazkideek hamar euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, berriz, hamabi euro. Edozein zalantza edukiz gero, deitu ondorengo zenbakietara 943 371 448 eta 695 785 389.

Euskal jaietako pintxo-potea

Euskal Jaietako lan taldearen izenean, taberna guztiei gonbita

luzatzen diegu, Euskal Jaietan arratsalde-gau partean tabernak giroteaz gain pintxo-potea ere eskaintzeko. Hala nahi izanez gero, gurekin jarri harremanetan 695 785 389 telefonoan.

Euskotren neguko ordutegia

Astelehenean Euskotreneko zerbitzuen neguko ordutegia jarri zen indarrean. Honekin batera lanegunetako zerbitzuak berreskuratuko dira. Euskotreneko geltokian, Appan edo web orrialdean ordutegiak eskuragarri daude.

Biyak Bat elkarteko bidaietan lekua

Biyak Bat Erretiratuen elkarteak urrian eta 2018ko maiatzean egingo dituen bidaietan izena emateko aukera dagoela jakinarazten du.

Urriaren 16tik 25era Badajoz eta Jaenera joango dira elkarteko kideak; 2018ko maiatzaren 7tik 14ra

Mediterraneoan zeharreko bidaiak egingo dute. Informazio gehiago elkartearen egoitzan eskura daiteke.

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean, irailaren 25ean, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, 17:30etik 20:30era. Anima zaitetze, odola ordezkaezina da, eta odol falta dago!

Eusko Ikaskuntzako beka

Eusko Ikaskuntzak 2017-2018 ikasturterako bi beka aurreikusi ditu Master Amaierako proiektuentzat. Gaiak: Gazteen harreman sareak euskararen sozializazioan eta Euskararen erabileraren aldeko motibazioak gazteengan. Informazio gehiago Eusko Ikaskuntzaren web orrian.

UDAL EUSKALTEGIA

30

urtez zuekin

BERRIA!
HABEren titulu ofizialak euskaltegian bertan lortzeko aukera

UDAL EUSKALTEGIAK
euskara ikasleak

LASARTE-ORIA
UDALA - ANTIKIMBERTZA

2017-2018 EUSKARA IKASTAROAK

MATRIKULA ZABALIK IRAILAREN 21 ARTE

Izena epe barruan ematen baduzu, 10 kuotatan ordaintzeko aukera.

DIRU-LAGUNTZAK: %85! Baldintza bereziak gazte eta langabetuentzat. GALDE EZAZU

IKASTAROAK:

- AURREZ AURREKOAK: Maila guztiak astelehene ostegunera. Txandaka ibiltzeko aukera.
- ON LINE

AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

- Hizkuntz eskakizunak eta HABEren maila guztiak.
- Titulu homologoak: OSAKIDETZA, IVAP, HEZKUNTZA, ERTZANTZAn balio dutenak.

Tel: 943 36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus - www.lasarte-oria.eus (administrazioa>udala zure zerbitzura). BULEGO ORDUTEGIA: 09:00-19:00

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Extebizitza salgai. Usurbil. Duplexa Kalezarren salgai; Aizparrena etxea, 176 metro karratu (120 eta 56). Garajea 50 metro karratu eta terraza 9m. Igogailua eta fatxada berriak. Oso argitsua eta bista onak. 359.000 euro Telefonoa: 679 002 101

ALOKAIRUA

Extebizitza alokatzen da Sasota auzoan. Bi logela

ditu eta berogailua etxe osoan. Telefonoa: 649 526 766

LANA

ESKAINTZA

Esperientzia duen zerbitzaria behar da taberna batean goizez lan egiteko. Telefonoa: 631 062 689

ESKAERA

Interna bezala eskaintzen dut neure burua. Orduka lan egiteko prest nago. Adineko pertsonak zaintzeko edo

garbiketarako egiteko. Telefonoa: 671 763 558

Ostalaritza lanak, haur edo pertsona adinduen zaintza lanak edo etxeko lanak egingo nituzke. Telefonoa: 631 166 377

Zaintza lanak (haur edo pertsona adinduak) eta etxeko lanak egiteko pertsona eskaintzen da. Ostalaritza ere lan egingo nuke. Telefonoa: 619 355 819

Adineko pertsonak edo haurrak zaindu, etxeko lanak egin edo ostalaritza

lan egiteko prest. Telefonoa: 676 188 411

Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko (etxean eta ospitalean ere bai). Asteburuetan, jaiegunetan zein gauetan lan egiteko prest. 606 661 048 / 943 404 015

SALEROSKETAK

SALDU

Ohe artikulatua, sofa ortopedikoa eta ultzerak

ekiditeko koltxoia saltzen ditut. 670350378

BESTELAKOAK

ALOKAIRUA

Garaje marra alokatzen da Zubietan plazan. 943 372 066.

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO: Txintxarri erredakzioan 943 37 14 48

- Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90€
- Eskela mota guztiak paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

JAIOTAKOAK

Nicolas Ricardo Sandoval Gomez. Irailaren 8an.

HILDAKOAK

Arsenia Rodriguez Ingelmo. Irailaren 10ean.

Marcos Campos Felipe. Irailaren 8an.

Antonio Leon Labrador. Irailaren 7an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 15 ACHA-ORBEA

Larunbata, 16 LASA

Igandea, 17 LASA

Astelehena, 18 URBISTONDO

Asteartea, 19 GANDARIAS-URIBE

Asteazkena, 20 GIL

Osteguna, 21 DE MIGUEL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52

ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49

DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51

LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74

GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29

URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67

GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21


GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA
BAINO LEHEN.

OSTIRALA 15

LASARTE-ORIA Done Jakue azoka

17:00etan: Azoka, tailerrak eta antzeztokia irekiko dute. Haur jolasak eta kalejira.
17:30etan: Tartaruga antzerkia.
18:00etan: Eulali: ipuin kontalariak. Tailerrak: xaboi burbuila. Hegazti harraparien hegaldi erakustaldia.
18:30etan: Kalejira: Xaribari. Teatrak la calle.
19:00etan: Tartaruga antzerkia.
19:30etan: Hegazti harraparien hegaldi erakustaldia.
20:30etan: *Pedrit Onewheel*, Gizon-orkestra.
21:30etan: 'El clan de los guerreros', Teatrak la calle

LASARTE-ORIA Antzerkia

Obra de Dios antzezlan ikusi ahalko da, Pentacion eta Txalo produkzioak eskutik. Mariano Peña da protagonista eta @TheTweetOfGod twitter kontuan du oinarri lanak. Sarrerak 12 euro. *Manuel Lekuonan, 21:00etan.*

HIPODROMOA Kutxa Kultur Festibala

Musika mota ezberdinetako kontzertuak izango dira Kutxa Kultur musika jaialdian.

Hipodromoan, 17:15etik aurrera.

LARUNBATA 16

LASARTE-ORIA Done Jakue azoka

10:30etan: Kalejirak.
11:00etan: Merkaturia irekiko dute.
11:30etan: Haur jolasak. Tartaruga antzerkia *El Rataurante*.
12:00etan: Kalejira animazioa. Eulali: ipuin kontalariak. Musika animazioa.
12:30etan: Kale antzerkia: *Reina de los guerreros de los valles del Kuruma*. Hegazti harrapakarien hegaldi erakustaldia.
13:00etan: Tailerra: xaboi burbuila.
14:00etan: Kale antzerkia.
17:00etan: Musika eta orkestra merkatu osoan barrena. Eulali: ipuin kontalariak. Kale antzerkia. Hegazti harrapakarien hegaldiaren erakusketa.
18:00etan: 'Pedrit Onewheel', Gizon-orkestra.



HIPODROMOA/LASARTE-ORIA Kutxa Kultur Festibala Kutxa Kultur Festibalak ostiralean eta larunbatean musikaz beteko du Hipodromo. Aterpea Merkatarien Elkartek Udalaren laguntzaz, jaialdiko aurreko orduak girotzeko pintxo musika antolatu du larunbatean. Taldeen izena duten pintxoak dastatu ahalko dira garagardo batez lagunduta, 3 eurotan. *Larunbata, 12:00etatik 15:00etara, hainbat tabernatan*

19:00etan: Barzonia zelta musika taldea.
21:30etan: Ikuskizuna: musika eta sua, antzerkia bidez.

LASARTE-ORIA Kutxa Kultur Festibala

Kutxa Kultur musika jaialdia dela eta, hainbat tabernetan pintxo musika izango da, baita kontzertuak ere:
12:00etan: 'Roadhouse', Ola kalea ONCEko kiosko dagoen plazan
13:00etan: 'Indian Feathers', Jaizkibel plaza
14:00etan: *Psicoacustic*, Pablo Mutiozabal kalea Oriarte aurreko karratuan

HIPODROMOA Kutxa Kultur Festibala

Musika mota ezberdinetako kontzertuak izango dira Kutxa Kultur musika jaialdian.
Hipodromoan, 17:00etatik aurrera.

IGANDEA 17

LASARTE-ORIA Done Jakue azoka

11:00etan: Merkaturia ireki.
11:30etan: Musika eta antzerkia merkatu osoan barrena.
12:00etan: Eulali: ipuin kontalariak. Tartaruga antzerkia: *El Rataurante*.
12:30etan: 'Pedrit Onewheel', Gizon-orkestra.
13:00etan: Barzonia zelta musika taldea.

13:30etan: Kale antzerkia: *Unicornio Mágico*, Teatrak la calle.
14:00etan: Tartaruga antzerkia *El Rataurante*. 'Pedrit Onewheel', Gizon-orkestra.
17:30etan: Barzonia zelta musika taldea. Eulali: ipuin kontalariak.
18:00etan: Teatrak la calle: *Despertad de la siesta*. Tartaruga antzerkia. .
18:30etan: Tailerra: xaboi burbuila.
19:00etan: Barzonia zelta musika taldea.
19:30etan: Antzerkia eta kaleko animazioa: Orkestra-gizona.
20:30etan: Kale antzerkia: *Reina de los guerreros de los valles del Kuruma*.
21:30etan: Merkatuaren itxiera.

ASTEARTEA 19

LASARTE-ORIA Zine zikloa

Lasarte-Oriako Bizikidetzak Taldeak antolatutako 'Bakea, bizikidetzak eta memoria' zine zikloan 'Glencree' (bake prozesua), elkarrekin egindako bidea' dokumentala eskainiko da. Indarkeria ezberdinen biktimen arteko topaketak eta hauen esperientziak kontatzen ditu. Gaztelaniaz izango da. Ostean, Maixabel Lasa eta Lourdes Zabalza *Glencree* ekimeneko kideekin solasaldia izango da. *Antonio Merceron, 19:00etan.*

ZINEMA

USURBIL

URBIL

Detroit

Ostirala: 15:50, 18:45, 21:40, 00:35
Larunbata: 15:50, 18:45, 21:40, 00:35
Igandea: 15:50, 18:45, 21:40.

Barry Seal: El Traficante

Ostirala: 16:00, 18:05, 20:25, 22:00, 00:55.
Larunbata: 16:00, 18:05, 20:25, 22:00, 00:55.
Igandea: 16:00, 18:05, 20:25, 22:00.

It

Ostirala: 17:00, 18:00, 19:15, 20:45, 22:00, 23:30, 00:30.
Larunbata: 17:00, 18:00, 19:15, 20:45, 22:00, 23:30, 00:30.
Igandea: 17:00, 18:00, 19:15, 20:45, 22:00.

El Otro Guardaespaldas

Ostirala: 16:45, 19:45, 22:15, 00:50.
Larunbata: 16:45, 19:45, 22:15, 00:50.
Igandea: 16:45, 19:45, 22:15.

Emoji: La película

Ostirala: 15:50,

18:20.
Larunbata: 15:50, 18:20.
Igandea: 15:50, 18:20.

La niebla y la doncella

Ostirala: 15:55, 22:45.
Larunbata: 15:55, 22:45.
Igandea: 15:55, 22:45.

Tadeo Jones 2: El secreto del Rey

Ostirala: 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00.
Larunbata: 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00.

Igandea: 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00, 21:00.

Verónica

Ostirala: 20:15, 22:25, 00:40.
Larunbata: 20:15, 22:25, 00:40.
Igandea: 20:15, 22:25, 20:30, 22:40.

La torre oscura

Ostirala: 00:45.
Larunbata: 00:45.

Ray Arturo: La leyenda de Excalibur

Ostirala: 22:45, 00:30.
Larunbata: 23:30.



LABURPENA

Tadeo Jones 2: El secreto del Rey Midas

Zuz.: David Alonso, Enrique Gato. **Herr.:** Espainia (2017). **Gidoilariak:** Javier Barreira, Jordi Gasull, Neil Landau. **Muntaia:** Alexander Adams. **Aktoreak:** Adriana Ugarte, Jose Corbacho, Michelle Jenner. **Iraupena:** 81 minutu

Midas Erregearen sekretuaren bila

Indiana Jones izan nahi duen arkeologo zoroaren bigarren pelikula dugu 'Tadeo Jones 2: El secreto del Rey Midas'.

Oraingoan, Tadeo Jones Las Vegasera doa Sara Lovroff arkeologoaren aurkikuntza berriaren aurkezpena: Midas Erregearen lepokoa existitzen dela frogatzen duen papiroa. Errege honek ukitzen zuen guztia urre bilakatzen zuen.

Baina aberats maltzur batek Sara bahitzen du talismanak aurkitu eta ondasun mugagabeak izateko. Sara askatzeko Tadeo Jonesek bere adimena zorrotz beharko du.

Era berean, bidai ikaragarria biziko du bere lagunekin batera: Tiffany ikaslea, momia, Belzoni lora eta Jeff txakurra. Granada, Grezia edo Turkia bisitatuko ditu abentura berri honetan. Bidean lagun eta etsai berriak aurkituko ditu.

Familian bikain pasatzeko aukera ezin hobea.

Tadeo Jonesen abenturen lehena Espainian ekoiztutako animaziozko filmik arrakastatsuen izan zen: hiru Goya sari jaso zituen eta mundu osoan zehar 50 milioi euro irabazi zituen 50 herrialdeetako zinema-aretoetara hurbildutako 10 milioi ikusleei esker.

LASARTE-ORIA

STOCK AZOKA ATERPEA DENDETAN

Irailak 22 egun osoa eta irailak 23 goizez

DENDAK

DECO 75 ETXEKO EHUNAK
ALBA MODA
OLMI MERTZERIA
LEDER OINETAKOAK
URRUZOLA MERTZERIA
ARREGUI ELEKTRIZITATEA
ITURBE OINETAKOAK
INÉS FLORES ARTISAUTZA

KATTAGORRI JOLAS
ABREU BAZARRA
DONNA BOUTIQUE
ARITZA MERTZERIA
MABEL MODA
LAS-ARTE PINTORE ESTUDIOA
MARBELL ILE-APAINDEGIA

**MATRIKULAZIOA ZABALIK**
eman izena!

- Euskarako klaseak: A1, A2, B1, B2 eta C1.
- Aurrez aurreko eskolak.
- Autoikaskuntza.

Munnteri AEK euskaltegia
Geltoki kalea 17, behe, 20160 Lasarte-Oria • 943 37 28 63 • lasarte@aek.eus
www.munnteri.blogspot.com.es

Erreflexuen aurkako
2 mō betaurreko
graduatu

97€

www.multioplicasgipuzkoa.com f t e

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA
ERRENTERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Eskaintza baliagarria 2017/12/31 arte. Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan